

Zuia - Gorbeialdea

AURKIBIDEA

HAURREN BERTSOAK

LEGUTIO

3. orrialdea.....Garazi ikastola – 5. maila

4. orrialdea.....Garazi ikastola – 6. maila

URKABUSTAIZ

5. orrialdea.....Izarra Herri eskola – 5. maila

6. orrialdea.....Izarra Herri eskola – 6. maila

ARAMAIO

7. orrialdea.....San Martin Eskola – 5. maila

8. orrialdea.....San Martin Eskola – 6. maila

ZIGOITIA

9. orrialdea.....Gorbeia eskola – 5. maila

10. orrialdea.....Gorbeia eskola – 6. maila

MURGIA (ZUIA)


11. orrialdea.....Oroko Andra Mari ikastetxea – 5.A

12. orrialdea.....Oroko Andra Mari ikastetxea – 5.B

13. orrialdea.....Oroko Andra Mari ikastetxea – 6. maila

ESKUALDEKO BERTSO ESKOLAK

14. orrialdea.....Mapa eta kontaktuak



Garazi ikastola – Legutio
5. maila

Kaixo gaurko publikoa
oso polita gaurkoa
ondo pasatzen eta abesten
aurrera doa saioa

Bertso hauek guk prestatu
ta bertso hau gogoratu
bihotzarekin beti sentitu
ta orain besteak abestu

Frontoian gaude jolasten
eta asko disfrutatzen
bazkaldu dugu bai oraintxe bai
eta bertsoak abesten

Oso onak gara denak
pilota eta bai palak
oso politak bertso guztiak
eta orain hurrengoak

Gopegin gaude gu gaur
ta hemen daude pila haur
Legutiokoak gara hemengoak
ta esaten dizuegu agur



Garazi ikastola – Legutio
6. maila

Desberdina ta berezia da
gu gaitu seme alaba
Euskal Herria da gure herria
gure hizkuntza euskara
desberdina ta berezia da
gure hizkuntza euskara

Euskara oso polita da bai
ta gaztelania itzali
etxean kalean ta lanean
maite baduzu erabili
euskara oso polita da bai
maite baduzu erabili

Euskal Herrian jaio bazara
hizkuntzari eman muxu
kalean eta etxe guztitan
euskaraz hitz egin zazu
Euskal Herrian jaio bazara
euskaraz hitz egin zazu

Hirurehun eta hirurogeita bost
egun daude urte osoan
Euskal Herrian atzo eta gaur
Egun euskara ahoan
Hirurehun eta hirurogeita bost
egun euskara ahoan



Izarra Herri eskola – Izarra

5. maila

Goizean jartzen dute
 beti bai Etn
 beti dago apurtzen
 ta beti dantzaten
 tolai bat bezelaxe
 tronpa erakusten
 ez da oso azkarra buruz
 ez korrika egiten

Eskolan egiten da
 arroza erara
 ere fabadarekin
 ere beharbada
 goxoa gelditzen da
 urarekin traba
 eta muskuiluaren
 familiakoa da

Urdina edo grisa
 du gorputz ta buru
 dibertigarria da
 hori bai seguru
 taldean joaten da
 ontzien inguru
 bale eta marrazo
 antza handia du

Bere hatzaparrekin
 bizi denak kendu
 berak gorputz gutxi du
 baina asko buru
 berak zu harrapatu
 ni oso seguru
 oso polita da ta
 baina ez hurbildu

Gozo gozoa dago
 etxean jateko
 zerbait osasuntsua
 da askoz hobeto
 horrekin jolastean
 prestau zikintzeko
 marroia eta gozoa
 kakaren antzeko

Egunero janzteko
 eta erabiltzeko
 beti erabiltzen dugu
 ondo lanerako
 ikastoletan beti
 ondo jolasteko
 ta erabiltzen dugu
 pertsonok janzteko



Izarra Herri eskola – Izarra
6. maila

Tibia zuenez guztiz hautsita
bera hasi zen oihuka
kirofanora eraman zuten
moztu zioten bere hanka

Hogei, berrogei ta hirurogei
hau aprobetxa dezagun
ehun, berrehun eta hirurehun
ai zenbat zorte daukagun

Ospitalera joan da Iñaki
ezin izan du jolastu
Iñakik dauka igeltsoa ta
guztiok sinatu dugu

Etxetik bueltan bestea erori
eta besoan hartu min
lurrean dago erdi negarrez
eta denek barre egin

Anbulantzian eraman zuten
eta oso nekatuta
ospitalera eraman zuten
negarrez eta oihuka

Zonbi guztiak esnatu dira
ez dute nahi izan gerra
denok dantzatzen hasi dira gaur
hau da hau festa ederra



San Martin Eskola – Aramaio
5. maila

Zuhaitza ez moztea
Guretzako hobe
Zuhaitzak moztuz gero
Oxigeno gabe

Ez ipini mesedez
Ezer lorontzian
Politagoak dira
Loreak mendian

Gure mendi ta baso
Gaixoekin adi
Zertarako behar da
Tren nazkante hori?

Gure animaliak
Ez daude ez doan
Animali basati
Guztiak basoan

Herriko kaleetan
Dena dago zikin
Zabor organikoaz
Konpost ona egin

Etiketetik ikusi dut
Mendian tiroak
Mendietan ez utzi
Zuen kartutxoak

Birziklatu ezkerro
Amonak egurreko
Berrerabili eta
Dena da hobeto

Gauza onik ez dauka
Aht berriak
Hiriak ez handitu
Ta zaindu mendiak

Basora ez bota ez
Kristalik mesedez
Zeren gero suteak
Sortzen dira berez

Hobe da ibiltzea
Mendian Goretex
Zertako errepideak?
Ez egin mesedez

Animaliak hilda
Basoak erreak
Errua dute hontan
Zigarro merkeak

Otsoa, krokodilo,
Erlea, enara...
Animaliak hilda
Dena pikutara

***Ai mundua
Dago kutsatua
Gizakiak du
buru karratua***



San Martin Eskola – Aramaio
6. maila

Plazer handia izan da
Hona etortzea
Honek eragin digu
Klasea galtzea
Denoi opa dizuegu
Ondo pasatzea
Agur ta ondo pasa
Zuiako jendea

Arratsaldeon denoi
Gu biziga urrun
Gopegi herria dugu
Bastante ezagun
Etorri garenean
Zauen dena ilun
Gaur guk egin ditugu
Ehunda hoge lagun

Aurten Bertsopilota
Tokau da Gopegin
Eta jolastuko dugu
Lagunekin fin fin
Aramaixon bezela
Ibili ga berdin
Ondo pasatu dugu
Jolas berriekin



Gorbeia Eskola – Zigoitia
5. maila

ASMAKIZUNAK

Bere bainujantzia
Beti dago janzten
Itsas baten azpian
Hor dago bizitzen
Bere lagun batekin
Marmotak ehizatzen
Izar bat da baino ez da
Zeruan bizitzen

Batzuetan handiak
Batzuetan urdin
Beti hortzak garbitu
Bestela gaitzekin
Beti daude goxoak
Beti daude berdin
Hori egiten dute
Azukrearekin

Balio du egiteko
Kriston marrazkia
Ez da oso handia
Baita da txikia
Bere puntan ere bai
Marra bat txuria
Horia eta beltza
Baita ere gorria




Gorbeia Eskola – Zigoitia
6. maila

Gaur etorri zarete
gure Gopegira.
Ay ze herri polita,
frontoian distira!
Murgia, Izarra, Legutio,
Aramaio tira.
Ongi etorri jende
Gopegi herrira!

Ondo pasatu dugu
orain bertso tara.
Hemen abesten gaude
oso onak gara.
Emango diguzue
txalo zaparrada,
guk ia bukatu dugu,
orain zuen txanda.

Gaur goizean jolasten
ondo pasa dugu.
Berdin zen irabazi
ta berdin zen galdu.
Gorbeiako inguru
frontoian seguru,
guztiekin jolastu
zen gure helburu.



Oroko Andra Mari - Murgia

5.A

Leku urrun bat eta
 Gainera azkena
 Enez hasten da eta
 Bera politena
 Hor izozten zara zu
 Hori da txarrena
 Kanika baten antza
 Ta errege izena

Animali azkarra
 Egiten arrantza
 Orain bizirik dago
 Betiko esperantza
 Guztian hoberena
 Inoiz dauka akatsa
 Arrainak bezain trebe
 Raketaren antza

Bere adar handiak
 Ta oso gogorra
 Bere gorputz polita
 Ta be bai altxorra
 Ipurditik botatzen
 Du beti zaborra
 Animalia bat da
 Ta oso jatorra

Marroi, berde kolorez
 Gorputz dena bete
 Ez du ziztatzen edo
 Ez dago atake
 Bat hartu nahi baduzu
 Erabili pote
 Manifestazio baten
 Antza izan dezake

Ugaztuna da eta
 Ez dauka ilea
 Asko gustatzen zaio
 Igeri egitea
 Arrainak jaten ditu
 Da haragijalea
 Itsasoan bizi da
 Mokoia luzea

Hori erostekotan
 Dago merkatuan
 Asko badaukazu zuk
 Azkenean sua
 Lanak egiteko ta
 Hartzeko jokua
 Badauka teklatura
 Ta ez du teklatura



Oroko Andra Mari - Murgia

5.B

Egiten duena da
Izoztu txoria
Askotan ikusten da
Ez da gaur berria
Temperatura jaitxi
Hori bai egia
Hemen dago neguan
Bigun ta txuria

Masail hezur handia
Itsusi ahoa
Jarrera berezia
Pixka bat leloa
Nahiz eta hori dana
Baita gustukoa
Zaratatsua da ta
Grisa kolorea

Sentsazio hau batzutan
Da oso astuna
Lehenengo arraroa
Eta gero iluna
Ez da oso polita
Ta ez da laguna
Espinakak purean
ematen dizuna

Barraskilo bat dauka
Maskota erera
Eta beti hor dago
Barre ta algara
Lanera joaten da
Ta ez eskolara
Sudur luzea duen
Sukaldaria da

Gaixotzen zaitu eta
Hau jasan ezina
Dardaran jartzen zaitu
Ta ere mingaina
Sentimendua da ta
Tristura berdina
Kalean zaudenean
Ez da atsegina

Txikiak ateratzean
Beti oso neke
Aulki pila bat daude
Leiho eta ate
Zinemaren antzeko
Pantaila daukate
Jolasteko tokia
Ere izan daiteke



Oroko Andra Mari- Murgia
6. maila

Euskal Herriko hizkuntza
Da aspaldikoa
Euskara da hizkuntza
Lehen mundukoa
Euskal Herri osoan
Euskara eroso
Euskara lehen hizkuntza
Europa osokoa

Euskal dantza entzuten
Mugitu gorputza
Beti euskaraz kantatzen
Guk hartzean dutxa
Guk patio orduan
Hartzen dugu luntxa
Guk maite dugu asko
Bai gure hizkuntza

Euskara maitatzea
Denontzat hobeto
Euskara erabili
Beti jolasteko
Euskara irakurri
Eta idazteko
Hitz egin behar dugu
Ez desagertzeko

Euskal Herrian gaude
Ta entzun laguna
Eta gure hizkuntzak
Dauka osasuna
Abenduaren hiruan
Euskararen eguna
Hau da gure herria
Zuia euskalduna

Euskaraz egitean
Polita da dena
Denek ez dakitela
Batzutan problema
Euskara ez erabili
Ze nolako pena
Hau da gure hizkuntza
Ta da hoberena

Eskualdeko bertso-eskolak
2014-2015 ikasturtea

LEGUTIOKO BERTSO-ESKOLA

Legutioko Kultur Etxea
Ortiz de Zarate enparantza z/g
01170 (Legutio)
Kontaktua: Iñaki Lertxundi
Tel: 945 010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak)
e-posta: araba@bertsozale.eus



ARAMAIOKO BERTSO-ESKOLA

Aramaioko Kultur Etxea
Nardeaga, 36 (Ibarra).
01160 ARAMAIO
Arduraduna: Txema Abarrategi
Telefonoa: 945 010505 (ABE)
e-posta: araba@bertsozale.eus

IZARRAKO BERTSO-ESKOLA

Urkabustaizko udala
Udaletxe plaza
01440 IZARRA
Arduraduna: Manex (euskara teknikaria)
Telefonoa: 945 437080 (Udala) - 945010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak)
e-posta: euskara@cuadrillazuia.com

MURGIAKO BERTSO-ESKOLA

Murgiako institutua
Domingo de Sautu, 65
01212 MURGIA
Arduraduna: Unai Mendibil
Telefonoa: 945 010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak) – 688616531



AMAIA ZENTROA
Benito Pérez Galdós z/g
01002 GASTEIZ
Tel: 945010505 fax: 945288275
Mug: 688695875 - 688616531
e-posta: araba@bertsozale.eus
www.bertsozale.eus/araba